

17/10 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Mari Tere Ojanguren
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko irailaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **2017-18 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako kidegoetako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoko LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 9 artikulua, 11 xedapen gehigarri eta 7 eranskin ditu.

1.etik 5.era bitarteko artikuluek ikastetxe mota desberdinetako Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen dituzte. Bigarren Hezkuntza, HHE, Hizkuntza Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak I.tik V.era bitarteko eranskinetan daude.

6. artikulua Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara atxikita dauden erlijio irakasleen LPZ jasotzen du, VI. Eranskinean zerrendatuta dagoena.

7. artikulua VII. Eranskinean azaltzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoaren LPZ onartzen du.

8. artikulua Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) LPZ onartzen du, eta 9. artikulua IX. Eranskinean azaltzen den Kirolene-Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoko LPZ onartzen du.

1. xedapen gehigarriak hainbat plazaren banakapena eta integrazioa aipatzen du. 2., 3., 4. eta 5., eta 7. xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

6. xedapen gehigarria hizkuntz profilen derrigortasunari buruzkoa da; 7.ak lanpostuak hornitzeko prozedura erregulatzen du; 8.ak ingelesez irakasten diren espezialitateak arautzen ditu eta 9.a eta azkena, berriz, hizkuntz indargarriko irakasle plazei buruzkoa da. Zortzigarrenak lanpostuak hornitzeko sistema ezartzen du. Bederatzigarrenak atzerriko hizkuntzan emandako espezialitateetarako baldintzak zehazten ditu. Hamargarrenak zenbait postutara iristeko behar diren espezialitateak arautzen ditu. Hamaikagarrenak dio postu guztietan aurkeztu behar dela kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babes Juridikoaren Legearekin bat etorriz.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu honetan jasotako LPZetan 68 plaza gehiago daude, Laudioko Udal BHIa Hezkuntza Sailaren sare publikoan integratu delako.

Horietatik 8.417 Bigarren Hezkuntzako kidegoetakoak dira (aurreko ikasturtean baino 74 gehiago) eta gainerakoak (944) DBHko lehen zikloan irakasten duten maisu-maistren kidegokoak dira, iaz baino 5 gutxiago.

LPZ organiko honetan LHko irakasle teknikoek eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako lan-itunpeko langileek izan dute plaza kopuruaren igoera handiena, 114 eta 49 hurrenez hurren. Bestalde, 89 plaza gutxiago ditu Bigarren Hezkuntzako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoak.

Bigarren Hezkuntzako eta dekretuan jasotako beste kidego batzuetako LPZ organikoko plazak, ikastetxe motaren arabera. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteak.

	2016-17	2017-18	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (BHI) *	6.498	6.409	-89
Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikarien Kidegoa (BHI)	1.021	1.135	114
Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako Irakasle Kidegoa (BHI)	19	16	-3
HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak	314	313	-1
Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoak	111	114	3
Arte Plastikoko Katedradun eta Irakasle Kidegoak	11	11	0
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Lan Kontratudun Langileak (BHI)	184	233	49
HEOetako Lan Kontratudun Langileak	5	5	0
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioetako Lan Kontratudun Langileak	25	22	-3
Arte Eskoletako Lan Kontratudun Langileak	9	9	0
Erljio Katolikoko Lan Kontratudun Langileak (BHI)	72	68	-4
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	67	74	7
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	7	7	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.343	8.416	73
Maisu-maistren kidegoa	949	944	-5
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako eta beste batzuetako plantilla organikoak guztira	9.292	9.360	68

(*) Lehen taldeko 6.409 plazetatik 6.254 institutuetaoak dira eta 155 HHEkoak.

Bigarren Hezkuntzako kidegoak jomuga ikastetxeen arabera banatuz gero, ikus liteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilla organikoan 71 plaza gehiago daudela eta HHE ikastetxeetakoan 3 plaza gehiago.

Bigarren Hezkuntzako kidegoetako LPZ organikoetako plazen banakapena, jomuga zentroaren arabera. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteak.

	2016-17	2017-18	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak era beste batzuk	7.716	7.787	71
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	152	155	3
Hizkuntza Eskola Ofizialak	319	318	-1
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	136	136	0
Arte Eskola	20	20	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.343	8.416	73

Plantillen euskalduntzeari dagokionez, ikastetxe guztietako langileen %79k dauka HE2. Aipatzekoak dira DBHko maisu-maistren kidegoa (%94) eta HHEko irakasleena (%94). Bestalde, erlijioeko irakasleen kasuan %90ak du HE2. Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioetako HE2dun plazen portzentajea ere 5 puntu hazi da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZ organikoetan 2HE duten plazen portzentajea, zentro motaren arabera. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteak.

Ikastetxe mota		2017-18			2016-17	Δ Azken urtea
		2HErekin	Guztira	2HE	2HE	
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta beste batzuk	5.983	7.787	%77	%75	%2
	Maisu-maistren kidegoa	891	944	%94	%94	%0
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak		146	155	%94	%93	%1
Hizkuntza Eskola Ofizialak		257	318	%81	%80	%1
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak		99	136	%73	%68	%5
Arte Eskola		8	20	%40	%40	%0
Guztira		7.384	9.360	%79	%78	%1

Kontuan hartzen badugu Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) *funtzionamendu plantilla* osoa, ikusiko dugu, Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzan 265 irakasle gehiago dagoela, 2016-17ko 8.107 plazetatik 2017-18ko 8.372 plazetara igaro direlarik.

Maisu-maistren plantillan, 77 plaza gutxiago dago. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilletan 188 plaza gehiago egongo dira aurtengo ikasturtean.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako funtzionamendu plantilla 2016-17an eta 2017-18an

	2016-17	2017-18	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta ordainpeko langileak	8.107	8.372	265
Maisu-maistren kidegoa	1.071	994	-77
Funtzionamendu plantilla guztira	9.178	9.366	188

Unitate eta ikasle kopurua handitu egin da etapa guztietan, Batxilergoan izan ezik, non 5 unitate gutxiago baitaude.

Irakasle/ikasgela ratioa eta ikasle/irakasle ratioa mantendu egin dira Bigarren Hezkuntzan, eta ikasle/ikasgela ratioa berriz %0,3 murriztu da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2016-17 eta 2017-18 ikasturteetako aurre-matrikula.

		2016-17	2017-18	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	DBH	1.836	1.899	63	%3,4
	Batzilergoa	575	570	-5	-%0,9
	Lanbide Heziketa (CM eta CS eta OLH)	1.048	1.097	49	%4,7
	Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak	84	89	5	%6,0
	Unitateak guztira	3.543	3.655	112	%3,2
Ikasleak (aurre-matrikula)	DBH	39.483	40.331	848	%2,1
	Batzilergoa	14.682	14.711	29	%0,2
	Lanbide Heziketa (CM, CS eta OLH)	20.772	21.301	529	%2,5
	Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak	521	571	50	%9,6
	Ikasleak guztira	75.458	76.914	1.456	%1,9
Irakasleak: funtzionamendu plantilla		9.178	9.366	188	%2,0
Irakasle / ikasgela ratioa		2,6	2,6		%0,0
Ikasle / ikasgela ratioa		21,3	21,0		-%0,3
Ikasle / irakasle ratioa		8,2	8,2		%0,0

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako (BHI) plantilla organikoa mantendu egin dela aurreko

ikasturtekoarekin alderatuta. Bestalde, HHE zentroetako LPZ ofizialean 3 plaza gehiago daude, UHEIn 7 plaza gehiago daude, eta gainerakoak mantendu egin dira.

Funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, iaz baino 188 plaza gehiago daude, eta aurre-matrikulako datuen arabera, 1.675 ikasle eta 68 ikasgela gehiago ere bai. Horrek esan nahi du ikasle/ikasgela ratioa pixka bat murriztu dela, eta irakasle/ikasgela ratioa mantendu egin dela.

Kontseiluak uste du ratioak oro har erreferentziazko araudiak ezarritakoaren azpitik mantendu direla. Hala ere, Lehen Hezkuntzako LPZri buruz eginiko gogoetari eutsi nahi dio. Hau da, baliabideak esleitzean, kontuan har daitezela profil sozioekonomiko baxuena duten ikastetxeak, horrela jatorriko defizitak konpentsatzeko eta curriculumeko gaitasunen garapen-maila bera erdiesteko ikasle guztientzat.

Azkenik, tutoretza-lanak egiteagatiko pizgarri ekonomikoaren zenbatekoari buruzko Laugarren Xedapen Gehigarriari dagokionez, azpimarratu nahi dugu Eskolaratze Osagarriko Programetako irakasleek ez dutela funtzio hori aitortuta, nahiz eta tutoretza-lana egiten duten eta arreta berezia behar duten ikasleekin gainera.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko irailaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA